



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

BERDINTASUN SAILA

2016ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	2
2. ZERBITZUAREN EGITEKOAK.....	3
2.1 KOORDINAZIO-LANA.....	3
➤ ERAKUNDE PUBLIKOAK	
➤ MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	
➤ UDALAK	
➤ HEZKUNTZA	
➤ ENPRESAK	
➤ ELKARTEAK	
➤ KOMUNIKABIDEAK	
2.2 BESTE EGITEKO BATZUK.....	6
➤ HEDAPENA	
➤ HERRITARRENTZAKO ARRETA	
➤ GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA	
➤ DIRU-LAGUNTZAK	
3. PROGRAMAK.....	8
4. DIRU-LAGUNTZAK.....	23
5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO LANAREN LABURPENA.....	23

1. ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Berdintasun Zerbitzuaren betebeharr nagusia Udalerri gait honi buruzko laguntza tekniko ematea da. Zerbitzu honen helburua emakumezko eta gizezkoen arteko harremanak aldatzea da. Horretarako, bai emakumezko eta gizezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko eta konpentsatzeko, bai genero-gizarteratzearen ondorioei aurre egiteko, bai berdintasunezko gize-eredu bat bermatzeko balio izango duten programak, planak eta proiektuak bultzatzen ditu.

Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan Mankomunitateak: haraneko udalerri edo herritar guztientzat antolatutako **jarduketa komun bitartez** eta Udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako **jarduketa espezifikoen bitartez**. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-teknikariak laguntza tekniko eskaintzen die udalerri bakoitzeko Berdintasun Unitateei.

2. BERDINTASUN-ZERBITZUAREN EGITEKOAK

Zerbitzu hau existitzearen helburua da Txorierriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea, generoa zeharka landuz. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio politika publikoetan emakumeen eta gizonen Tratu Berdinaren eta Aukera Berdinen printzipioa aplikatzeari; horrek esan nahi du bermatu egingo dela baliabide guztiak eskuratzeko aukera-berdintasuna dagoela, politika publikoak diseinatzerakoan egun existitzen diren desberdintasunak aintzat hartzen direla eta politika horiek aurrez aipaturiko berdintasun erreal eta eraginkor hori lortzeko izan dituzten emaitzak eta eragina identifikatzen eta ebaluatzen dela.

2.1. KOORDINAZIOA

ERAKUNDE PUBLIKOAK

➤ Bizkaiko Foru Aldundia

Etengabe dihardugu elkarlanean Aldundiarekin; izan ere, erakunde horrek diruz laguntzen ditu berdintasunaren arloan Udalek egiten dituzten hainbat ekintza. Derio salbuespena da; izan ere, 5.000 biztanletik gora dituenek, ez du Aldundiaren diru-laguntza hori jasotzen.

Bestalde, BERDINBIDEAN BIZKAIA proiektua dugu. Proiektu horrek berdintasunaren alde lan egiten du Lezaman eta Zamudion; hori dela eta, beharrezkoa da erakunde horrekin harreman estuagoa izatea.

➤ EMAKUNDE

Emakumearen Erakundea oinarrizkoa da EAEn berdintasuna lortu ahal izateko, eta lankidetzaz funtsezkoa da sailak behar bezala funtziona dezan.

➤ EUDEL

Larrabetzu izan ezik, gainerako udalerririk guztiak BERDINSAREA izenekoaren kide dira. BERDINSAREA euskal udalerrien sare bat da eta berdintasunaren alde lan egiten du.

Hori dela eta, ezinbestekoa da EUDELekin eta sareko kide diren gainerako udalerriekin lankidetzan aritzea.

MANKOMUNITATEAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Berdintasuna Mankomunitateko sail guztietan zeharka landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen gara Gazteria, Esku-hartze Komunitario eta Euskara sailtako teknikariek.

UDALAK

Zerbitzu honek behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea udal guztietako Kultura Sailekin; hori dela eta, hilean behin sail horretako ordezkari guztiok bildu egiten gara Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailtako ordezkariekin.

Ekintzak abiatzeko, ezinbestekoa da, halaber gazteguneeetako, gaztelekuetako eta ludoteketako begiraleekin harremanetan egotea.

HEZKUNTZA

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainetan, ohikoa da eskola publikoetara ekintzak eramatea; horretarako, ezinbestekoa da ikastetxe horietako zuzendaritzekin elkarlanean jardutea.

Kanpaina horietan, HHlan ere abiatzen dira ekimenak; horretarako, funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin batera lan egitea.

Politeknika Ikastegia Txorierrirekin ere harreman estua dugu; izan ere, urtero antolatzen da bizikidetzarekin eta berdintasunarekin erlazionaturiko jarduera bat.

ENPRESAK

Enpresa hauekin egiten dugu lan batez ere: WOM COMUNICACIÓN, ORTZADAR, ESHE, MURGIBE, SORTZEN, LANTEGI BATUAK.

ELKARTEAK

Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik emakume-elkarteak dituzte; Berdintasun Saila haiekin harreman etengabea eta lankidetzaz jarraitua izaten saiatzen da.

KOMUNIKABIDEAK

Funtsean, Berdintasun Saila bi komunikabiderekin aritzen da elkarlanean: AIKOR eta DEIA.

2.2. BESTE FUNTZIO BATZUK

HEDAPENA

Udalerrietako kultur agendak eta webguneak erabiltzen dira batez ere Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko.

Horrez gain, kartelak jarri, diptikoak postontzietan sartu eta sare sozialak ere erabiltzen dira.

HERRITARRENTZAKO ARRETA

Ohikoa izaten da emakumeak Berdintasun Sailera etortzea genero-indarkeriari buruzko aholkularitza bila. Orain arte, eskura dituzten baliabideen berri eman diegu eta kasu zehatzagoetan, esaterako, indarkeria jasaten ari den alaba adingabe bat dutenen kasuan, zer egin azaldu diegu.

GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

Hilean behin, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean aurkezten dira Berdintasun Sailean antolatzen diren programak eta ekintzak.

3. PROGRAMAK

JARDUERAREN IZENA

1.- HARREMAN AFEKTIBO-SEXUALETAKO INDARKERIAREN ETA SEXISMOAREN PREBENTZIOA

1.- Jardueraren esparrua

Jarduera hau Politeknika Txorierriko ikasleentzat da.

2.- Jardueraren helburuak

Honako hauek dira helburu nagusiak:

- Politeknika Txorierriko nerabeen artean berdinen arteko indarkerian eta genero-indarkerian esku hartzen duten mekanismoei buruzko eztabaida sustatzea.
- Pertsonen arteko harremanak finkatzeko behar diren funtsezko balioak sendotzen laguntzea: berdintasuna, autonomia, aukeratzeko askatasuna, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea...
- Berdintasunean, indarkeriaren prebentzioan, kulturarteko hezkuntzan eta halako balioetan oinarritutako hezkuntzarako jarduera onak sustatzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

90 minutuko saio bat egin ba talde bakoitzarekin, bertan landu da:

1. Tratu txarretan eta errespeturik ezean esku hartzen duten mekanismoei buruzko eztabaida sustatzea Politeknika Txorierriko ikasleen artean.
2. Neska eta mutil gazteen arteko elkarbizitzarako alderdi gako gisa sustatzea ikasleen arteko indarkeria-harremanak elkarrizketa eta desberdintasunaren onarpena erabiliz eraldatzea, hainbat sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueraren bitartez.

4.- Ebaluazioa

Eztabaida oso interesgarriak eta aberasgarriak sortu dira, eta hainbat proposamen bildu dira harremanak hobetzeko. Horrez gain, ikasleak indarkeria matxistaren kausen eta ondorioen inguruan sensibilizatzea lortu da, eta jarduera onak sustatu dira. Hortaz, bete egin dira programaren helburuak.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 612 €-koa izan da.

6.- Hartzaileak

- El grupo de 1º MEC (25alumnos, 2 chicas)
- Un grupo de 1º Bachiller (25 alumnos, 3 chicas)
- Un grupo de 1º Bachiller (25 alumnos, todos chicos)

7.- Hobekuntzen proposamenak

Programa hau ontzat jo dute bertan esku hartzen duten eragile guztiek. Hala ere, agian interesgarria izango litzateke ikastetxeko ikasleekin sakonago lan egitea.

JARDUERAREN IZENA

2.- MARTXOAREN 8KO KANPAINA:



1.- Jardueraren eremua

Martxoaren 8ko kartelak Txorierriko udalerri guztietarako dira, eta udalerri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera banatzen dira.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei martxoaren 8ko kanpainaren berri ematea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Kartel bat diseinatu da, eta horren 250 kopia egin dira. Kopia horiek Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrietan jarri dira.

4.- Ebaluazioa

Zaila da horrelako jarduerak ebaluatzea; izan ere, martxoaren 8ko kanpainarako kartel bat diseinatzean eta kartela eta egitaraua 6 udalerrietan jartzean datza.

5.- Aurrekontua

Kartela diseinatzearen, kartel 250 eta 5.000 diptiko inprimatzearen eta jartzearen kostua 1.877,92 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko herritarrak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Azaroaren 25eko kanpainarako, diptiko gutxiago egingo dira.

JARDUERAREN IZENA

3.- BERDINTASUNARI BURUZKO TAILERA HHEn (MARTXOAREN 8KO KANPAINA)

1.- Jardueraren esparrua

HHEko ikasleentzako jarduera da. Borondatezkoa da, ez da eskola-ordutegian egin beharreko ekintza bat.

2.- Jardueraren helburuak

Ikastaro honek bi ordu irauten du, eta asmoa da bertaratzen direnak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarrietara gerturatzea. Helburua da ikasleak sensibilizatzea eta haiei prestakuntza teoriko eta praktikoa ematea, euren garapen pertsonalean laguntzeko eta benetako berdintasuna lortzeko bidean gizarteak egin behar dituen aldaketetan ekarpenak egitera animatzeko.

3.- Jardueraren deskripzioa

Helburua da identifikatzea eta barneratzea pertsona guztiok desberdinak garela pertsona sexudunak garelako. Balio hori landu egin behar da, betiere desberdintasunak zuzen balioztatzen ditugunean, elkar hobeto ulertzeko, desadostasunak kudeatzeko eta generoaren araberako sozializazio bereizgarria deseraikitzeke. Bestalde, sistemen teoriari eta bikote-teoriari lotutako edukiak landu ziren, sistemen berezko ezaugarriak zein bikote-harremanenak, eta bereziki azpimarratu zen jelskortasunaren gaia eta zelotipia-jokoa, berdintasunean, askatasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako bikote-harremanak sustatze aldera.

4.- Ebaluazioa

Ikasleek esker ona adierazi diote Derioko HHEko koordinazio-arduradunari eta hizlariari, eta oso pozik gelditu direla adierazi dute. Hitzaldiaren helburuei dagokienez, lortu da sexu-desberdintasunak identifikatzeko eta baloratzeko ideietan eragitea, sexuen arteko sinergia-aliantzak sustatu dira bikote-harreman bidezkoagoak ezartzeko, eta baliabideak eman dira zelotipia-jokoa detektatzeko eta horri aurre egiteko.

Gainera, ontzat jo behar da bertaratzea borondatezkoa zela eta pertsona ugari bertaratu zirela.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 250 eurokoa izan da guztira.

6.- Hartzaileak


21 pertsonak parte hartu zuten: 11 emakumek eta 10 gizonek.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Interesgarria izango litzateke berdintasunaren aldeko lanean denbora gehiago ematea, baina egutegia nahiko beteta dago eta zentroko zuzendaritzak ez du posible ikusten hori.

JARDUERAREN IZENA

4.- MARTXOAREN 8KO KANPAINAREN BARRUAN EGINIKO ANTZEZLANA



1.- Jardueraren eremua

Sondikako entzunaretoa erreserbatu zaio Lezamako emakumeen antzeztaldeari.

3.- Jardueraren helburuak

Jarduera honen bitartez, helburu hauek lortu nahi izan dira:

- Antzeztaldeko emakumeen ahalduntzea sustatzea
- Emakume hauek urte osoan zehar egiten duten lana ikustera ematea
- Bertaratutako ikusleak genero-berdintasunari buruz sentikortzea

3.- Jardueraren deskripzioa

Antzezpenerako behar izan diren antzokiko langileen eta soinu-teknikariaren gastuak ordaindu dira.

4.- Ebaluazioa

Jardueraren hasieran finkatutako helburuak bete dira, eta hasierako zenbatespenak gainditu ere egin dira.

5.- Aurrekontua

Kostua 471 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko udalerritako interesdun guztiak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Ez dago jarduera berriz ere egiteko asmorik.

JARDUERAREN IZENA

5.- INSTITUTUAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO TAILERRA

1.- Jardueraren eremua

Institutuko 1., 2. eta 3. DBHko ikasleak eta irakasleak sensibilizatzeko jarduera bat da.

2.- Jardueraren helburuak

Hona hemen jardueraren helburuak:

- Sozializatzeko prozesuak eta horiek nortasuna eraikitzeke orduan duten eragina identifikatzea.
- Identitatea eraikitzeke orduan eta harreman afektiboetan dauden mito, estereotipo eta uste faltsuen inguruan kontzientzia hartzea.
- Errespetuzko eta berdintasunean oinarritutako harremanak identifikatzea eta sustatzea.
- Indarkeria sexista zer den, zergatik gertatzen den, zer egin behar den eta laguntza non lor daitekeen sakonago aztertzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

1., 2., eta 3. DBHko talde bakoitzarekin 2 orduko 3 saio egingo dira; hau da, tailerrak 6 ordu iraungo du talde bakoitzarekin, eta irakasleekin bi orduko saio bat egin da.

4.- Ebaluazioa

Jardueran parte hartu duten guztiek oso positibotzat jo dute.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 6.680 eurokoa izan da,

6.- Hartzaileak

Jarduera hau institutuko 1., 2., eta 3. DBHko ikasleentzat eta irakasleentzat da.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Etorkizunera begira, tailerrekin jarraituko dugu.

JARDUERAREN IZENA

6.- AZAROAREN 25EKO KANPAINA

L O I U <ul style="list-style-type: none">- "Tratu onen aldeko eskuen murraltza" Ludotokitik- Eldeberri: Azaroak 21. Noviembre 17.00an- Zabalduz: Azaroak 23. Noviembre 18.00tan- Azaroak 25. 18.00an "Erreagelutako jarrerak gurtzen eta hurreman sasoak erabiltzen" Gasteigunak
S O N D I K A <ul style="list-style-type: none">- Azaroak 25. 18.00tan "Erreagelutako jarrerak gurtzen eta hurreman sasoak erabiltzen" tailerra. Gasteigunak- Azaroak 25. Noviembre, 19.00etan, besteak beste: "Zure hondur aldeko jolasetako prest? / ¿Estás dispuesto/a poner la grinta de arena?" (enku-argi-matx, manifestuaren idazketa, sonda horretz bete, erortzea, txakelata...)
D E R I O <ul style="list-style-type: none">- Azaroak 18. 18.00tan "Mujeres y Hombres y viceversa, beste hitzaldi batetik behera." Tailerra. Gasteigunak- Azaroak 22. Noviembre, 17.00tan. "Bider Forum"- "No estás solo Sur" Kultur Birika. Antolatzaile/organiza: Saldutik- Azaroak 25. Noviembre, 19.00etan. Lectura de manifestos en el Ayuntamiento, sonda hacia el futuro y a continuación desfile de desfiladoras contra tres parejas de policías feministas
Z A M U D I O <ul style="list-style-type: none">- Azaroak 13. 18.00tan "Tratu onen aldeko esku murraltza" (18. urte) 18. "Birikin haur onen aldeko pultserak" 18.12 urte tailerak, Ludotokitik- Azaroak 24. Noviembre, 19.00tan Antzerkiak/Festib "Escapadas. Historia del primer erotismo" eta jantzi Zamuñotoren- Azaroak 25. Noviembre, 12.00tan. Udalekoan eta 19.00etan Kultur Etxean - Konzentrazioa/Concentración- Azaroak 25. Noviembre, 19.00etan Emakumeen bazterrearen gaur emandako "Peldoa baxoa Feminista Kirologoa/Trididoposio"- Azaroak 26. 19.00etan "Mujeres y hombres y viceversa, beste hitzaldi batetik behera. II. zatia" tailerra. Gasteigunak
E Z Z A <ul style="list-style-type: none">- Azaroak 18. 19.00etan "Erreagelutako jarrerak gurtzen eta hurreman sasoak erabiltzen" Gasteigunak- Azaroak 25. 17.00etan 19.00etan "Birikin haur onen aldeko esku murraltza" Ludotokitik- Azaroak 25. 18.00etan "Maitasuna ez da indarkeria" - Gasteigunak- Azaroak 25. Noviembre, 19.00etan Konzentrazioa: Concentración "Ez zara emakumeak diru baliabide" Herriko Pizkan, Antolatzaile/organiza: Moreak- Azaroak 25. Noviembre, 19.00etan. Antzerkiak/Festib "Tiryo" - 2016 ("Amor e amor") AUSAOTAK antzerki taldearekin. Kultur Aretoa
L A R R A B E T Z U <ul style="list-style-type: none">- Azaroak 18. Jantzi festibak jantzi festibak- Azaroak 25. 19.00etan Konzentrazioa plaza- Azaroak 27. 14.00etan, Women in Black. Larrabetzuko Pizkan. Biltzei jarraitu aurrera

1.- Jardueraren eremua

Azaroaren 25eko kartelak eta 5.000 diptiko Txorierriko udalerrira guztietarako dira, eta udalerrira bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera banatzen dira.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei azaroaren 25eko kanpainako jardueren berri ematea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Kartel bat diseinatu da, eta horren 250 kopia egin dira. Kopia horiek Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrietan jarri dira. Lehen aldiz, kartelez gain, 5.000 diptiko argitaratu dira, eta udalerrira bakoitzeko leku estrategikoetan utzi dira.

4.- Ebaluazioa

Zaila da horrelako jarduera bat ebaluatzea; izan ere, azaroaren 25eko kanpainarako kartel bat diseinatzean eta kartela eta egitaraua 6 udalerrietan jartzean datza.

5.- Aurrekontua

250 kartel eta 5.000 diptiko diseinatzearen, inprimatzearen eta jartzearen kostua 1.877,92 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko herritarrak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainari begira, jaitsi egingo da diptikoen kopurua; izan ere, ikusi da 5.000 diptiko gehiegi direla.

JARDUERAREN IZENA

7.- PUNTU LILA TXAPAK EGITEA ETA BANATZEA

1.- Jardueraren esparrua

Sentsibilizazio-jarduera da

2.- Jardueraren helburuak

Herritar guztiak emakumeenganako indarkeriaren aurka sentsibilizatzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Guztira 5.000 txapa inprimatzeko agindu da. Udalerri bakoitzeko leku publikoetan utzi dira.

4.- Ebaluazioa

Jarduera positibotzat jo da, eta herritarren harrera oso ona izan da.

5.- Aurrekontua

Txapak egitea eta banatzea: 1.125,30 €

6.- Hartzailea

Txorierriko herritar guztiak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Unean uneko jarduera izan da, eta oso harrera ona izan du; hortaz, etorkizunera begira, ez da hobekuntzarik proposatzen.

JARDUERAREN IZENA

8.- PUNTU LILADUN TXAPAK ESKOLETAN

1.- Jardueraren eremua

Txorierriko ikastetxe publikoekin bilera bat egin ondoren, erabaki zen elkarrekin jarduera bat egitea azaroaren 25ean.

2.- Jardueraren helburuak

Hona hemen jardueraren helburuak:

- Eskualdeko eskolekin batera lan egitea berdintasunaren alde.
- Haurrak azaroaren 25eko kanpainan parte har dezaten lortzea.

3.- Jardueraren deskripzioa

Txapak egiteko 5 makina alokatu dira, baita beharrezko materiala ere, Lehen Hezkuntzako hurrek puntu liladun txapak egiteko.

4.- Ebaluazioa

Irakasleek, ikasleek zein gurasoek oso positibotzat jo dute jarduera.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostu osoa, 1.318 eurokoa izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko eskoletako ikasleak.

7.- Hobekuntzen proposamenak

Unean uneko jarduera bat da, eta ez da hobetzeko alderdirik identifikatu, baina ikusi da eskola publiko guztiekin modu koordinatuan eta batera lan egiteko beharra dagoela eta hainbat abantaila dituela.

4. DIRU-LAGUNTZAK

2016ean, 1.322,79 euro jarri ditu Eusko jaularitzak, institutuak urtero antolatzen dituen indarkeria prebenitzeko tailerretarako.

5. UDAL BAKOITZEAN EGINIKO JARDUEREN LABURPENA

Mankomunitateak herritar guztientzako jarduerak antolatzen ditu, eta udalek dagokiena egiten dute udalerrri bakoitzean. Hona hemen udalerriek eginiko ekintzak.

LOIU

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Loium:

MARTXOAREN 8KO LOGOTIPO-LEHIAKETA	
Jardueraren deskripzioa	Martxoaren 8a zela eta, Loiuako gazteentzako (11 urtetik 18ra) logotipo-lehiaketa bat antolatu zen Berdintasun Saileko ekintzak identifikatu eta ezagutarazteko. <u>Landutako helburuak</u> Gazteak Berdintasun Saileko jarduera batean inplikatzeko
Egutegia	Otsailaren 9tik 29ra
Parte-hartzaileen kopurua	10 mutil

MARTXOAREN 8KO BAKARRIZKETA

Jardueraren deskripzioa	<p>“Cariño ¡cómo hemos cambiado!” bakarrizketa martxoaren 4ko emakume-bazkarian egin zen, bazkalondoan hain zuzen ere.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">- Emakumeek jasaten dituzten bereizkeria-egoerei buruz sentikortzea, umorearen bitartez- Loiuako emakumeen banako nahiz taldeko ahalduntzea sustatzea
Egutegia	Martxoaren 4an
Parte-hartzaileen kopurua	790 emakume

AUTOESTIMU-LANTEGIA

Jardueraren deskripzioa	<p>Lantegiak 6 ordu eta erdi iraun zuen guztira, eta apirilean eta maiatzean egin zen.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">- Autoestimuari buruzko osoko ikuspegia sortzea, baita harekin batera datozen “A” guztiei buruzkoa ere: autokontzeptua, autokonfiantza, autobalorazioa, auto-onarpena eta autoerrespetua- Eguneroko bizitzako gatazka-egoerei aurre egiten ikastea, norberaren eta taldearen ahalduntzetik
--------------------------------	--

Egutegia	Apirilaren 19an eta 26an; maiatzaren 3an eta 10ean
Parte-hartzaileen kopurua	8 emakume

OSASUNARI BURUZKO HITZALDIA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroan "Gure gorputza eta gure sexualitatea zoru pelbikoaren bitartez konektatzen" lantegia egin zen.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeek beren gorputza ezagutzeko guneak sustatzea, eta emakumeek beren gorputzari eta osasunari dagokienez dituzten premia espezifikoak lantzea - Zoru pelbikoa ezagutzea eta lantzea: haren egitura (pelbisa), perineoko muskulatura eta erraiak, horrela hainbat arazo edo patologia prebenitu ahal izateko; adibidez, gernu-ihesak, uzki-esfinterreko gutxiegitasunak, umetoki edo maskuri eroria (prolapsoak), arazo sexualak, etab.
Egutegia	Azaroaren 8an
Parte-hartzaileen kopurua	8 emakume

GAZTEENTZAKO LANTEGIA AZAROAREN 25EAN	
Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroaren 25a zela eta, "Errespetuzko jarrerak garatzen eta erlazio sanoak eraikitzen" lantegia egin zen Gaztegunean.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Identifikatzea emakumeenganako indarkeriak zer kausa izaten dituen gazteen artean</p> <p>Gazteen arteko indarkeriari aurre egiteko estrategiak sustatzea</p>
Egutegia	Azaroaren 25ean
Parte-hartzaileen kopurua	6 mutil
Kostua	210 €

HAURRENTZAKO LANTEGIA AZAROAREN 25EAN	
Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroaren 25a zela eta, halaber, "tratu onen aldeko horma-irudia" izeneko jarduera egin zen 5etik 12 urtera bitarteko haurrentzat Elotxelerrri eta Zabaloetxeko ludoteketan.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze ludikorako eremua sortzea, arte-sorkuntzaren bitartez • Haurrek beren sentimendu eta emozioak identifikatzea, eta horiek gainerakoenak errespetatuz adierazten ikastea

	<ul style="list-style-type: none"> • Tratu onen aldeko konpromisoa ikusgai egitea, horma-irudia sortuz • Jolasaren bitartez, adierazpen parte-hartzaile bat eraikitzea. Erakusgai jartzea eta ezagutzera ematea •
Egutegia	Azaroaren 21ean eta 23an
Parte-hartzaileen kopurua	22 lagun (16 neska eta 6 mutil)

SONDIKA

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Sondikan:

MARTXOAREN 8KO IBILALDIA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Udalak, elkarteen eta eskolaren laguntzaz, ibilaldia antolatu zuen martxoaren 6rako.</p> <p>Herrian zeharreko ibilbidea egin zen, eta ikasleek peto moreak prestatu zituzten ibilaldirako. Ibilaldia amaitutakoan, berdintasunaren aldeko adierazpena irakurri eta <i>flashmob</i> bat egin zen.</p>
Egutegia	Martxoaren 6an
Parte-hartzaileen kopurua	200 lagun

FESTETARAKO PEGATINAK	
Jardueraren deskripzioa	<p>Sondikako herritarrak sentikortzeko eta kontzientziatzeko, jendaurrean eta jaietan egiten diren eraso sexistei erantzun beharraz jabe daitezzen, 5.000 pegatina atera ziren "Sondikako jaietan ez dugu eraso sexistarik onartzen" leloarekin.</p> <p>Sondikako hainbat festetan banatu ziren, taberna eta txosnetan.</p>
Egutegia	Inauterietan hasi eta Santa Kurtzetan amaitu zen, irailaren 14an.
Parte-hartzaileen kopurua	Sondikako biztanle guztiak

AZAROAREN 25A GAZTETXEAN	
Jardueraren deskripzioa	<p>Sondikako Gaztetzeko azaroaren 25eko kanpaina zela eta, "Errespetuzko jarrerak garatzen eta erlazio sanoak eraikitzen" lantegia antolatu zen Gaztetzean.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrerak sustatzea gazteen artean • Harreman osasungarriagoak eta begirunetsuagoak eratzeko tresnak ematea
Egutegia	Azaroaren 25ean

Parte-hartzaileen kopurua	6 mutil
----------------------------------	---------

LEHEN HILEKOARI BURUZKO LANTEGIA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Urtarrilean lehen hilekoari buruzko lantegia antolatu zen, 9 urtetik 13ra bitarteko neskontzat eta haien gurasoentzat. Aldi berean baina bereiz lan egitea proposatu zen, hala hauren nola gurasoen premia bereziak landu ahal izateko.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Lantegiak helburu hauek zituen: sexualitatea osoko ikuspegitik lantzea; hilekoaren inguruko mito, tabu eta beldurrak desegitea; eta neskatoen autoestimua eta konfiantza handitzea</p>
Egutegia	Urtarrilaren 30ean
Parte-hartzaileen kopurua	26 lagun: 12 heldu (10 emakume eta 2 gizon) eta 14 neskato

SARE SOZIALETAKO INDARKERIARI BURUZKO LANTEGIA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Otsailean, gazteen gurasoentzako lantegia antolatu zen sare sozialetako indarkeriari buruz.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Helburua zen gertatzen ari diren indarkeria mota eta modu guztiak identifikatzea eta aztertzea, eta horiek antzemateko</p>

	eta aurre egiteko zenbait tresna ematea
Egutegia	Otsailaren 13an
Parte-hartzaileen kopurua	26 lagun: 12 heldu (10 emakume eta 2 gizon) eta 14 neskato

ZAMUDIO

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Zamudion:

MARTXOAREN 8KO ANTZEZLANA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Martxoaren 8ko kanpainaren barruan, helduentzako ipuin musikatuaren saio bat antolatu zen LA IGUALDAD NO ES UN CUENTO izenburupean.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Bertaratutakoak genero- estereotipoen eta -rolen inguruan sentikortzea • Gizarteratze bereizleari eta berdintasunari buruz gogoeta egitea
Egutegia	Martxoaren 11n
Parte-hartzaileen kopurua	30 emakume eta 5 gizon

MARTXOAREN 8A GAZTESTAZIOAN

Jardueraren deskripzioa	<p>Hedabideen bitartez helarazten diren genero-estereotipoetan sakontzen jarraitzeko asmoz, martxoaren 8a zela-eta beste behin egin zen “Mujeres y hombres y viceversa” programa.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Mutiletan/neskatan egitean agertzen diren generorolak aztertzea• Gazteek maitasun erromantikoari buruz barneratuta dituzten mitoak aztertzea• Bikote-harremanetako kontrol, indarkeria matxista eta abarretako ereduak identifikatzea• Hainbat bikote mota ezagutzea (elkarren mendekoak, mendekoak, mendekotasunik gabeak...)• Eredu onuragarriak proposatzea, harreman afektibosexual “osasungarriak” eta mutiletan/neskatan egiteko eredu “osasungarriak” ezartzeko
Egutegia	Martxoaren 11n
Partehartzaileen kopurua	15 neska

MARTXOAREN 8A LUDOTEKAN	
Jardueraren deskripzioa	<p>Martxoaren 8a zela eta, jarduera hauek egin ziren ludotekan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erantzunkidetasunaren aldeko txikisari-lantegia (5 urtetik 8ra) • Berdintasunaren aldeko orri-markatzaileak (9 urtetik 12ra) <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze ludikorako eremua sortzea, irakurgaietako genero-rol estereotipatuak gainditzearekin loturan • Hurrei martxoaren 8ko egunari buruz hausnartzeko aukera ematea • Hurrek berdintasuna eta erantzunkidetasuna zer diren ikastea • Jolasaren bitartez berdintasunezko jokabideak sustatzea
Egutegia	Martxoaren 11n
Parte-hartzaileen kopurua	30 neska eta 15 mutil

KOMUNIKAZIO-LANTEGIA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Komunikazioa esparru publikoan ahalduzten gaituen alderdi bat da. Komunikazio eraginkorrerako hainbat estrategia lantzeko asmoz, "enpatikoa, positiboa eta segurua" lantegia egin zen.</p>

	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko komunikaziorako teknikak gure garapen pertsonalean txertatzea • Komunikazio-oztopo psikologikoetako batzuk gainditzea • Entzutearen balioa ezagutzea • Gure emozioak ezagutzeko eta maneiatzeko bidea ematea • Gure ingurukoekin dugun komunikazioa hobetzea
Egutegia	Maiatzaren 3an, 10ean, 17an eta 24an
Parte-hartzaileen kopurua	10 emakume eta 1 gizon

AZAROAREN 25A LUDOTEKAN	
Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroaren 25a zela eta, bi jarduera egin ziren ludotekan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tratu onen aldeko horma-irudia (8 urtera arte) • Tratu onen aldeko eskumuturrekoak (9 urtetik 12ra) <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze ludikorako eremua sortzea, arte-sorkuntzaren bitartez • Haurrek beren sentimendu eta emozioak identifikatzea, eta horiek gainerakoenak errespetatuz adierazten ikastea • Tratu onen aldeko konpromisoa ikusaraztea, horma-irudia sortuz • Jolasaren bitartez adierazpen parte-hartzaile bat eraikitzea. Erakusgai jartzea eta ezagutzera ematea

Egutegia	Azaroaren 18an
Parte-hartzaileen kopurua	25 neska eta 6 mutil

AZAROAREN 25A GAZTESTAZIOAN

Jardueraren deskripzioa	<p>Harrera ona izan zuenez, eta Gaztestazioko dinamizatzaileek hala eskatuta, azaroaren 25erako bere horretan utzi zen “Mujeres y hombres y viceversa” programaren formatua.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • “Mujeres y hombres y viceversa” programaren ezaugarriak • Genero-estereotipoak • Gure gizartean eta subjektibotasunetan nagusi diren edertasun-ereduak • EZETZ esateko eskubidea eta iritziz aldatzeko eskubidea • Mutiltan/neskatan egiteko modu osasungarriak
Egutegia	Azaroaren 26an
Parte-hartzaileen kopurua	10 neska eta 12 mutil

DERIO

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Derion:

MARTXOAREN 8KO IBILALDIA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Derioko herritar guztiak inplikatu nahi izan dira berdintasuna lortzeko ahaleaginean.</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Udalerrian zeharreko ibilaldia antolatu zen; ondoren, haurrentzako lantegi batzuk eta zumba-saio bat.</p>
Egutegia	Ibilaldia martxoaren 6an egin zen, goizeko 11:00etan.
Parte-hartzaileen kopurua	140 lagun inguruk parte hartu zuten

“EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA” ERAKUSKETA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Emakumeek euskal pilotaren munduan duten parte-hartzea ikusgai jartzea• Beste emakume batzuei kirol horretan aritzeko bultzada ematea <p><u>Metodologia</u></p> <p>Erakusketa zeharo osatua antolatu zen, agiri, argazki eta azalpen-oholekin.</p>
Egutegia	Martxoaren 1etik 31ra bisitatu ahal izan da.
Parte-hartzaileen	

kopurua	Zaila da erakusketa ikustera zenbat lagun gerturatu den zenbatzea.
----------------	--

EMAKUMEEN MINBIZIA PREBENITZEKO LANTEGIA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Jarduera honen bitartez norberaren ezagutza sustatu nahi zen, ager litezkeen tumoreak identifikatu ahal izateko.</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Bi ordu eta erdiko lantegia izan zen, eta atal praktikoa eta teorikoa bana zituen.</p>
Egutegia	Martxoaren 7an
Parte-hartzaileen kopurua	19 emakume

GAZTELEKUKO LANTEGIA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Helburu nagusia indarkeria sexista prebenitzea izan zen.</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Bi orduz landu da telebistako "Mujeres y hombres y viceversa" programa, gertu duten errealitate batetik iritsi ahal izateko gazteengana.</p>
Egutegia	Azaroaren 18an
Parte-hartzaileen kopurua	9 neska eta 5 mutil

IPUIN-KONTALARIA LUDOTEKAN	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u> Helburu nagusia izan zen genero-estereotipoak eta -rolak desegitea, haurrek ulertzeko moduan</p> <p><u>Metodologia</u> Ipuin kontalari batek berdintasunaren inguruko ipuin batzuk kontatu zizkion umeei.</p>
Egutegia	Martxoaren 7an
Parte-hartzaileen kopurua	Ez zen zenbatu.

ANDRE BASERRITARRA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakume hauen banako eta taldeko ahalduntzea sustatzea - Ahaleginari eta borrokari emandako bizitza oso bat ikusgai jartzea <p><u>Metodologia</u> Argazki-erakusketa bat antolatu zen Derioko emakume baserritarrek ekarritako irudiekin eta, horrez gain, omenaldi txiki bat eta lunch bat egin zitzairen.</p>
Egutegia	Urriaren 15ean Kultur Birikan
Parte-hartzaileen kopurua	70 bat emakume

LEZAMA

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Lezaman:

MARTXOAREN 8KO ANTZEZLANA	
Jardueraren deskripzioa	<p>“Erase otra vez” antzezlan, Lezamako AUSARTAK emakumezko antzeztaldearen eskutik.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Emakumeek kulturgintzan betetzen duten zeregina, lana eta ahalmena ikusgai egitea• Emakumeen banako nahiz taldeko ahalduntzea sustatzea, arte eszenikoen bitartez• Herritarrak sentikortzea, antzerkiaren bitartez, emakumeen giza eskubideen defentsaren inguruan <p><u>Metodologia</u></p> <p>90 minutuko antzezlan baten bitartez</p>
Egutegia	Martxoaren 12an
Parte-hartzaileen kopurua	30 lagun (25 emakume eta 5 gizon)

MARTXOAREN 8A GAZTELEKUN: “Mujeres y hombres y viceversa. II. zatia” lantegia	
Jardueraren deskripzioa	<p>“Mujeres y hombres y viceversa” lantegian egindako lanarekin jarraitzeko asmoz, beste lantegi bat egitea proposatu zen, aurreko lantegian jorratu gabe geratu ziren alderdi interesgarriak sakonago aztertu nahian.</p>

	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Mutiletan/neskatan egitean agertzen diren genero-rolak aztertzea • Gazteek maitasun erromantikoari buruz barneratuta dituzten mitoak aztertzea • Bikote-harremanetako kontrol, indarkeria matxista eta abarretako ereduak identifikatzea • Hainbat bikote mota ezagutzea (elkarren mendekoak, mendekoak, mendekotasunik gabeak...) • Eredu onuragarriak proposatzea, harreman afektibo-sexual "osasungarriak" eta mutiletan/neskatan egiteko eredu "osasungarriak" ezartzeko <p><u>Metodologia</u></p> <p>Ordu eta erdiko lantegia. Edukiak parte-hartze bidezko hainbat dinamikaren bitartez landu ziren.</p>
Egutegia	Martxoaren 11n
Parte-hartzaileen kopurua	10 lagun (4 neska eta 6 mutil), 14 urtetik 15era bitarteko adinekin

LUDOTEKAKO URTEKO PROGRAMA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Ludotekan urtean zehar lau jarduera egiteko programa pentsatu zen, eta jarduera hauek egin ziren:</p> <p>Martxoa – Erantzunkidetasunaren aldeko txikisari-lantegia</p> <p>Ekaina – Aniztasunaren horma-irudia</p> <p>Uria – Tratu onen aldeko eskumuturrekoak</p> <p>Azaroa – berdintasunaren aldeko orri-markatzaileak</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Etxeko eta zaintzako lanak rol estereotipatuetatik bereiztea

	<ul style="list-style-type: none"> • Aniztasun sexuala ezagutzea eta errespetatzea. Familia-eredu askotarikoak identifikatzea eta errespetatzea • Sentimendu eta emozioak identifikatzea eta adierazten ikastea, eta gainerakoenak errespetatzea • Genero-sexu loturarekin eta rolekin haustea <p><u>Metodologia</u> Jarduera bakoitzak ordu eta erdi iraun zuen. Jolas-jarduerak erabili ziren edukiak lantzeko.</p>
Egutegia	Martxotik azarora
Parte-hartzaileen kopurua	<p>Txikisariak: 10 neska eta 8 mutil</p> <p>Aniztasunaren eskuen horma-irudia: 11 neska eta 8 mutil</p> <p>Tratu onen aldeko eskumuturrekoak: 14 neska eta 7 mutil</p> <p>Berdintasunaren aldeko orri-markatzaileak: 16 neska eta 10 mutil</p>

GAZTEGUNEKO URTEKO PROGRAMA	
Jardueraren deskripzioa	<p>Gaztegunean urtean zehar lau jarduera egiteko programa pentsatu zen.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Sexu-genero sistema nola eraikitzen den ulertzea • Gatazkak konpontzeko gaitasun sozialak lantzea • Harremanetako indarkeria-egoerak prebenitzea • Begirunean eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea <p><u>Metodologia</u> Jarduera bakoitzak ordu eta erdi iraun zuen. Saioak gauzatzeko, parte-hartze bidezko hainbat dinamika erabili ziren, parte-hartzaileengan gogoeta eta kontzientzia kritikoa</p>

	sustatzeko.
Egutegia	Urte osoan zehar. Saioak: martxoaren 4an, ekainaren 3an, urriaren 28an eta azaroaren 25ean
Parte-hartzaileen kopurua	31 lagun (18 neska eta 13 mutil)

KAFE-TERTULIAK	
Jardueraren deskripzioa	<p>Urtean zehar 3 kafe-tertulia egin ziren:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Mikromatxismoak 2. Mindfulness 3. Lehen hilekoa <p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>- Sentikortzea eta ahalduntzea areagotzea, biltzeko eta elkarrizketarako gune baten bitartez, bertan ikuspuntu feministatik proposatutako hainbat gairi buruzko ezagutza eta iritziak partekatzeko eta trukatzeko aukera emanda</p>
Egutegia	Martxoa, ekaina, urria
Parte-hartzaileen kopurua	59 lagun (54 emakume eta 5 gizon)

AZAROAREN 25EKO ANTZERKIA

Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroaren 25a zela eta, "TU+YO=ES" antzezlanaren egin zen, AUSARTAK emakume taldeak bereziki egun horretarako prestatua.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Emakumeek kultur gintzan egiten duten lana eta ahalmena ikusgai jartzea• Emakumeen banako nahiz taldeko ahalduntzea sustatzea, arte eszenikoen bitartez• Herritarrek sentikortzea, antzerkiaren bitartez, emakumeen giza eskubideen defentsaren inguruan
Egutegia	Azaroaren 25ean
Parte-hartzaileen kopurua	25 lagun (18 emakume eta 7 gizon)

AZAROAREN 25A GAZTELEKUAN

Jardueraren deskripzioa	<p>Azaroaren 25eko eguna zela eta, gazteekiko lanaren lehentasunezko ildoarekin jarraituz, "Errespetuzko jarrerak garatzen eta erlazio sanoak eraikitzen" lantegia egin zen Gaztelekuan.</p> <p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Jardueraren helburua, nagusiki, gazteen artean emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrerak sustatzea zen, hainbat eduki landuz:</p> <ul style="list-style-type: none">- Sexu-genero sistema- Emakumeenganako indarkeriaren jatorria eta zergatiak
--------------------------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-ikuspuntutik interpretatzea gizarte-mandatu eta -rolak, prebentziorako bide gisa - Begirunean eta berdintasunean oinarritutako harremanak eratzeko estrategiak, emakumeenganako indarkeria prebenitzeko bide gisa <p><u>Metodologia</u></p> <p>Ordu eta erdiko lantegia. Edukiak parte-hartze bidezko hainbat dinamikaren bitartez landu ziren.</p>
Egutegia	Azaroaren 18an
Parte-hartzaileen kopurua	8 lagun (6 neska eta 2 mutil)

LARRABETZU

2016. urtean, jarduera hauek egin ziren Larrabetzun:

HEZKIDETZA	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Udala, gurasoak eta eskola hezkidetzaren inguruan biltzea - Eskolako 5. eta 6. mailako haurrekin berdintasuna lantzea <p><u>Metodologia</u></p> <p>Atal honetan, Udaleko Hezkidetza Kontseiluaren dinamizazioa eta eskolak berdintasunari buruz egindako jarduerak sartzen dira.</p>
Egutegia	Urte osoan zehar
Parte-hartzaileen kopurua	Zaila da zehaztea.

MARTXOAREN 8A	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Ahal bezainbeste lagun sentikortzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Larrabetzuko martxoaren 8ko kanpaina erabatekoa izan zen. Askotariko jarduerak egin ziren, eta jende guztiarentzat. Azpimarratzekoa da hainbat elkarte eta taldek parte hartu zutela egun berezi honetako ekintzak antolatzen.</p>
Egutegia	Martxoaren 4tik 8ra
Parte-hartzaileen kopurua	Zaila da zehaztea, baina urtetik urtera gora doa.

AZAROAREN 25A	
Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Adin guztietarako jarduerak antolatu ziren.</p> <p>Azaroaren 25eko kanpainan ere Larrabetzuko elkarte eta herritarrek lagundu dute dena antolatzerakoan.</p>
Egutegia	Azaroaren 19tik eta 27ra
Parte-hartzaileen kopurua	Adin guztietako emakumeek parte hartu eta lagundu zuten. Horri esker, antolatutako ekintzek oso harrera ona izan zuten, eta jende askok hartu zuen parte.

LARRABETZUKO UDALERRIKO EMAKUMEEN HISTORIA

Jardueraren deskripzioa	<p><u>Landutako helburuak</u></p> <p>Egitasmo honen helburua zen pertsona horiek herriari egin dioten ekarpena eta euren bizi-ibilbideak euren inguruan izan duen eragina ikusaraztea eta horri balioa ematea.</p> <p><u>Metodologia</u></p> <p>Hautatutako emakumeak bildu ziren, haiei elkarrizketa egiteko; ondoren agiria idatzi, eta herritarrei aurkeztu zitzairen.</p>
Egutegia	Otsailetik irailera
Parte-hartzaileen kopurua	38 emakume